

## "Domuit Vascones!" eta tradizioa

Deia, 1983-07-11.

*Hitza*, gizakiaren bereizgarririk hertsiena da.

*Hasieran Hitza* izan zenez gero, pasa da mundua sortu Zuen ezkeroztik berez sakratuak geratu den aurren eta azken hitzik; bien bitartean, gizakiaren hitza, hitza agintzari denean, *ukatzea* edo *jatea* bekatu da; hitz *arroak* eta *xuriak*, tristeak, eta *isilak* eta *mutuak* diren hitzak, ukigarriak.

Ba da hitz *arruntik*, bestalde, eta hitz horien artean, bizidun guztien legez, ba dira jaio berriak eta hiltzen ari direnak, eta baita usuarioz bizirik badaude ere, erabileran murriztu eta pixka bat lotsatzen hasiak direnak.

Honelako bat dugu "tradizioa".

Nire ikuspuntu horietako batetan ("Jainkoa pisatu nahi dute") aipatu nuen nola hitzak, komunikazio-bide den hizkuntzak, Darwin-ek ikusi zuen *eboluzioaren* mekanismoa bera aldatu zuen; ez neuk esana, noski, biologo ospatsua den Alister Hardy doktoreak eta Sir Julian Huxley-k; ba pentsabide honen arauera, *tradizioa* biologiarene lan-gailu da gizartean. Eta, noski, herri bakoitzean.

Hau da berriz PSOE-n eragin zentralista-jakobinoak gogarazi nauten zerbait.

Nazionalista espainolek, bai fletxadunek eta baita arrosadunek ere, jarraituko dute guk herri bezala jatorrizkoak ditugun ezaugarriak galtzeko ahaleginetan. Francok aginkeri hutsez eta egur gorri bidez, eta orain demokrazitxureko zapalgailu legalista handi batez, *Konstituzio Espainola hoiak nahi duten bezala interpretatuaz*, geuri emandako hitzak janez. Horiek dira gaurko godoak! Mundu handian gure txikia den herriaren gainetik horiek pasa eta gero ez litzateke ezta Joxe Migel Barandiaranek aipa zidan munduko lorategian *euskal lore bakarti* hura ere geratuko.

Zer egin du PSOEk inoiz Euskalerrian, programetan, ekintzetan, itxurakeriaz besterik ez bada ere!, gure herri hau herri izaten jarrai dadin?!

Espainolaren zapalgailuaren mehatxua beti!

Gurearen orde, bereak dituen tradizioak, espainolaren izpiritu antzu eta anker horren aginkeria! Espainia eta Frantzia arteko herri sufritu hau bereak dituzten lore, belar txar eta hondakinez ere betetzen, beste "¡una vez por todas!" batekin, horien arbasoen antzeko "Caput Vascones!" orain aldarrikatuz.

Eta ba dakigu honetarako gure *hitza*, gure aberriaren giltza!, galtzea nahikoa dela.